

## Primateak klonatu dituzte lehen aldiz



Lehen makako klonatuak aurkeztu berri ditu Txinako Neurozientzien Institutuak. ARG.: Qiang Sun eta Mu-ming Poo/Txinako Zientzia Akademia/Cell.

Dolly ardia lortzeko erabili zen teknika berberarekin sortutako bi makako aurkeztu berri ditu Txinako Neurozientzien Institutuak. Teknika zelula somatikoen nukleo-transferentzia da, eta, orain arte, ez zuen emaitza onik eman primateetan. Batzuek interes handia zuten primateak klonatzeko, genetikoki gure espeziearen hain antzekoak izanda, ikerketa biomedikoetarako oso baliagarriak izango liratekeelakoan.

Hain zuzen, ikerketetan, genetikoki eraldatutako animaliak erabiltzen dira, eta abantaila bat izango litzateke genetikoki informazio berbera duten klonak izatea, guri eragiten diguten gaitzak ikertzeko. Makakoak klonatu dituzten ikertzaileek azaldu dutenez, helburu horrekin sortu dituzte bi makako-kumeak.

[Cell aldizkarian argitaratu dute esperimentera](#), eta zelula somatikoen nukleo-transferentzian oinarritutako teknikan egindako moldaketak ere azaldu dituzte. Adibidez, zelulak birprogramatzeko erabilitako konposatuen berri eman dute, eta aitortu dute ez direla zelula helduak birprogramatzeko gai izan. Hala, enbrioi-zelulak birprogramatuta sortu dituzte enbrioiak. Enbrioi horien garapena ere ez da izan oso arrakastatsua: makako emeen umetokietan ezarritako 60 enbrioietatik, bi baino ez dira jaiotakoak. ●

## Europako osasun mentaleko zerbitzuetan giza eskubideak urratzen dira

Europako Osasun Mentalaren erakundeak egindako txostenaren arabera, Europako osasun-sistemetan urratu egiten dira gaitz mentalak dituzten pazienteen giza eskubideak. [Txostenak](#) psikiatria-zerbitzuetako paziente ohien testigantzak bildu ditu, eta hauek dira ohikotzat jo dituzten gertaerak: derrigorrezko ospitalizazioa, terapia elektrokonpulsiboa, indarrean ezarritako tratamenduak —haietako batzuk albo-ondorio gogorrekin—, haiekin indarrez jokatzeko, min fisiko eta emozionala, informazio eta laguntza legalaren falta, oinarrizko arreta-falta, estigma, eta isolamendu sozial eta fisikoa.



Azken urteotan aurrerapen batzuk egon badira ere, oraindik XXI. mendean halako giza eskubideen urraketa ematea lotsagarritzat jo dute txostenaren egileek, eta praktika psikiatrikoak berraztertu eta aldatzeko beharra azpimarratu dute. Era berean, adierazi dute funtsezkoa dela hausnarketa horretan indarrean tratamendua hartzerako behartuak izan direnak entzutea. ●